

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

Administrazioaren Arabako lurralde Ordezkaritza

Jendurrean jartzen baita honako proiektu hau: Arabako Barrundia, Donemiliaga eta Aguraingo udalerrietan «"ST Elgea" (3204) delakotik "Arrikruz" (901354600) banaketa- eta maniobra-zentro berrirainoko 30 kV-ko aireko eta lurpeko lotura berria»

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko EHAA) ezartzen dituzten ondorioetarako, eta testuaren azken xedapenetako lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendurrean jartzen da jarduketara hau, baita eskatzaileak nahitaez desjabetzekotzat jotzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakoa ere.

– Eskatzailea: I-de Redes Electricas Inteligentes, SAU, helbidea Urartea kalea 2 helbidean duena (Vitoria-Gasteiz).

– Eskara: aurretiazko administrazio- eta eraikuntza-baimena, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua eta onura publikoaren deklarazioa.

– Helburua: inguruko energia elektrikoaren horniduraren kalitatea hobetzea.

– Erreferentzia: 01ATY 202200067.

«"ST Elgea" (3204) delakotik "Arrikruz" (901354600) banaketa- eta maniobra-zentro berrirainoko 30 kV-ko aireko eta lurpeko lotura berria».

– Linearen ibilbidea: Barrundia, Donemiliaga eta Agurain udal-mugarteak (Araba).

– Proiektuak ukitzen dituen ondasunak eta eskubideak: iragarki honen eranskinean zehaztutakoak.

– Aurrekontua: 485.527,24 euro.

Horren berri ematen da, guztiek jakin dezaten, eta batez ere lurren jabeek eta proiektuak ukitzen dituen gainerako titularrek jakin dezaten; horien zerrenda iragarkiaren amaieran agertzen da. Proiektua aztertu ahal izango da Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 1, Vitoria-Gasteiz), dagokion udalean edo Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/energia-meategiak/hasiera/>). Horrez gain, interesdunek egokitzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte aipatu zentroetan, bi aletan, hogeitaz eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 13a

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria
PEDRO RODRIGUEZ DIAZ

Eranskina

Eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda

Proiektua: Barrundia, Donemiliaga eta Aguraingo Udalerrietan «"St Elgea" delakotik "Arrikruz" (901354600) Banaketa- eta Maniobrazentzoko berrirainoko 30 kv-ko aireko eta lurpeko lotura berria».

Udalerria	Finka	Titularra	Poligonoa	Partzela	Izaera - laborea	AFEKZIOA			
						Euskarri Zk	Euskarri azalera (m ²)	Linearen Luzera (m)	Aireko zortasunaren azalera (m ²)
Barrundia	7	Primitivo Diaz de Arcaya Ruiz de Luzuriaga	3	351	Landakoa	T2/T3	13,01	346	3.137
Agurain-Salvatierra	12	Juan Larrion Ruiz de Gauna	1	925	Landakoa	T5	6,76	65	459
Agurain-Salvatierra	17	Primitivo Diaz de Arcaya Ruiz de Luzuriaga	1	910	Landakoa	T7/T8	13,52	245	2.152
Agurain-Salvatierra	27	Beatriz Iraizoz Oyarzun	1	954	Landakoa	T11	3,38	32	210